



▶ Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
▶



ANTZERKIA ESKOLARA HELTZEN DA KANPAINA

IKUSLE SORTZAILEAK PROGRAMA

ÚniKo





OHIKOAZ APARTEKOA!

Esperientzia estimulagarria irakasleentzat

Edizio bakoitzak erronka berriak ekartzen dizkie Teatro Paraisoko irakasleei eta lantalde artistiko eta pedagogikoei, elkarrekin Artea eta Eskola uztartzen dituzten esperientzia adierazgarriak sortzeko.

2020an, “UNIKO” izeneko ikuskizunean inspiratuta, emozioei buruzko gogoeta bat bultzatuko dugu. Zein dira? Zergatik dira garrantzitsuak? Horiek gabe bizi gaitezke?

Irakasleekin garatzeko tailerrean Arte Eszenikoak emozio positiboetara eta zenbaitetan toxikotzat jotzen ditugun haietara ere hurbiltzeko tresna oso baliagarritzat ulertzeko lagungarri izango zaizkigun dinamikak esperimendatuko ditugu elkarrekin. Jakin-minak esnatzen, beste begirada batzuk topatzen eta gorputza ikasgelako lanketaren muinean ipintzen saiatuko gara.

Helburua ekintza pedagogikoarekin gozatu eta eskola pertsonen hazkuntzarako eremu gisa aldarrikatzea da, ez soilik jakinduriaren ikuspegitik, baizik eta bizitzarekin lotzen gaituzten emozioen ikuspegitik ere.

Esperientzia artistiko hori Teatro Paraiso Antzerkiaren “UNIKO” ikuskizunaren inguruan garatuko da. Modu horretan kontenplazio artistikoaren aurretikoa, unekoa eta ondorengoa txertatzen dituen jardueren sekuentzia bat marraztuko da.

Ekintzen oinarrizko ildo bat eskainiko dugu, eskola bakoitzean irakasleen sorkuntzarekin pertsonalizatuko dena. Gainera, proposatutako ekintzak garatzeko beharrezkoak diren material didaktikoak banatuko dira.





IKUSLE BAKOITZAK BAKARRA DA

Ikerketa ikasgelan - Aurretiko jarduerak.

Hezitzaileek parte hartzen duten gela bakoitzean egiteko proposamena, programaren material pedagogikoetan oinarrituta.

Egun batzuk barru *Uniko, printze tronugabetua* antzezlanak ikustera joango zarete. Obra honetan ondo pasatzeko aukera izango duzue eta, bide batez, elkarbizitza, hezkuntza, autoestimua, tristura edota loturen gisako gaien inguruan hausnartzekoa.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar obra bat gai zehatz batean oinarritua bada ere, makina bat galdera sortu eta hainbat gai lantzeko aukera eman diezagukeela, momentu bakoitzean interesatzen zaigunaren arabera.

Oraingo honetan, ikasgela ikergune txiki/handi bihurtzea proposatzen dizuegu. Gu geu izango gara ikergaiak; geure emozioak ezagutu, momentu bakoitzean desberdin zergatik sentitzen garen ulertu eta geure sentimenduak besteekin partekatzen ikasiko dugu eta.

Horretarako, jarduera hauek proposatzen dizkizuegu:

1.1 JARDUERA. EMOZIONARIOA AURKITU DUGU (15 MIN.)

Unitate honekin batera, saioak aurrera eramaten lagunduko dizuten objektu bat duzu.

Orriak hutsik izanda ere, material hauek biltzen dituen albuma da:

1. *Uniko, printze tronugabetua* ikuskizunaren argazki bilduma
2. Antzerki-konpainiak sinatutako gonbidapen gutuna, barruan ikuskizunera joateko ikasleentzako sarrera duena.

JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

Gaur ikasgelako mahai baten gainean album bat agertu da. Familia argazkien albumen tankerako album handia da, baina honek **Emozionario** dauka izena.

Albumaren izenari buruz hitz egiten has zaitezke: Zer da *Emozionarioa*? Zer edukiko ote du barruan? Eta gordetzen dituenak geure emozioak baldin badira? Zein dira? Nola gorde daitezke album batean?

Jarraian, jarri arreta albumak dituen materialetan lehenengoari. *Uniko, printze tronugabetua* obratik hartutako argazki sorta.

Argazkietan Paul edo ikuskizuneko beste pertsonaiaren bat agertzen da. Eta, ondo erreparatzen badiogu, ikusiko dugu argazki bakoitzean espresio desberdina daukala aurpegian zein gorputzean.

Jarri ikasleak lau pertsonako taldeetan eta eman talde bakoitzari argazki bat. Pertsonaiari begiratuta, zer gertatzen zaion pentsatu beharko dute; zein emozio transmititzen digun eta horrela zergatik sentitzen den beraien ustez.

Ondoren, partekatu egin beharko dituzte. Talde bakoitzak bere irudia erakutsiko die beste taldeei eta agertzen diren emozioen zerrenda osatuko dugu denon artean. Modu honetan, oraindik ezagutzen ez ditugun pertsonaia hauek emozio desberdin mordoa bizi dituztela ikusiko dugu.

Baina, zer dugu esateko guri dagokigunean? Norbaitek sentitu du noizbait aipatutako emozioetakoren bat? Badakigu nola sentitzen garen besteei adierazten?

Batzuetan ez da erraza izaten gure emozioak besteekin partekatzea. Horregatik proposatzen dizuegu *Emozionario* hau sortzea. Gure emozioak modu originalean biltzeko albuma izango da, momentu bakoitzean nola sentitzen garen ulertzen lagunduko diguna, eta baita jendearekin partekatzen ere.



Dagoeneko barneratu zarete gaien.

Jarraian, antzerki-konpainiaren gutuna irakur dezakezu eta ikasleei laster **Uniko, printze tronugabetua** lana ikustera joango zaretela jakinarazi (albumaren barruan dagoen sinopsia irakur dezakezue). Hasi, pixkanaka, argazkiak albumean itsasten, lehenengo orrialdeak bete arte.

1.2 JARDUERA. IKUSLEAREN EMOTIAURPEGIAK

Esan dugunez, gure emozioekin lan egitea ez da batere erraza. Horregatik, beroketa gisa balioko duen lehenengo jarduera bat proposatzen dizuegu, pixkanaka gaian barneratzeko. Ikusle gisa izan dituzuen esperientziak eta gure aurpegiak eta gorputzak emozioak nola adierazten dituzten gogora ekartzean datza.

Gorputz adierazpenaren lanketan zuzenaren hasi beharrean, marrazteko ariketa bat egingo dugu.

Ezin dugu ahaztu gure aurpegiaren bidezko adierazpena dela pentsatzen zein sentitzen duguna adierazteko erremintarik onenetarikoa. Joko eran, **Emozionario**aren kapitulu berri bat hasia proposatzen dizuegu, **Emotiaurpegiak** izenekoa; bertan, noizbait ikusle gisa sentitu dituzuen emozioak edota adierazpenak marrazkien bitartez adierazi beharko dituzue.

Binaka egin dezakezue. Bata bestearen aurrean jarrita, lehenik batek eta ondoren besteak, jar ezazue sentsazioetako bat hoberen adierazteko aukera ematen dizuen aurpegia. Besteak, modu sinplean, kideak jarritako aurpegia marraztu beharko du.



Hemen duzue jolasari hasiera emateko erabil daitekeen emozioen zerrenda bat. Bestalde, marraztu nahi duzuen emozioa hor agertzen ez bada, gehitu zerrendara eta pertsonalizatu nahi bezala.

- Lasaitasuna
- Jakin-mina
- Poztasuna
- Urduritasuna
- Tristura
- Gorrotoa
- Bakardadea
- Amorrua
- Nahasmena
- Maitasuna
- (...)

Marrazkiak handiak, txikiak, koloretako orrietan... egin ditzakezue. Bakoitzak Emozionarioaren orrietan itsatsiko du bere marrazkia. Nahi izanez gero, orrialde bakoitzari emozio bat esleitu diezaiokezue eta dagozkion Emotiaurpegiak bertan itsatsi. Horrela, emozio bakoitza ez dela beti modu berean bizitzen eta adierazten ikusiko dugu, espresioak askotarikoak eta anitzak baitira.

1.2 JARDUERA. IKUSLEAREN EMOTIGORPUTZAK

Orain prest gaude geure gorputzekin lanean jarraitzeko. Gure aurpegia adierazpenerako bide bakarra ez dela ikusiko dugu, gorputzak eta mugimenduek ere une bakoitzean sentitzen duguna erakusten laguntzen digutela.

Ariketa hau burutzeko beharrezkoa da ikasgelako aulkiak zein mahaiak alboratzea eta guztiok arazorik gabe mugitu ahal izateko leku nahikoa uztea.

Ikasgelan zehar, poliki oinez hasiko gara, inolako helmugarik gabe, aske, baina gelditu gabe. Lehenengo 2 minutuetan erlaxatu egingo gara oinez gabiltzan



bitartean, ariketan zentratuko gara eta jarraian irakasleak esango digunari erreparatuko diogu. Irakasleak hitz bat esaten duenean, leku batean gelditu eta begiak itxiko ditugu.

Zuk, irakasle, aurreko jardueran zerrendatutako emozioak banan-banan eta poliki irakurriko dituzu. (Nahi izanez gero, nahi duzuna kendu edota gehi dezakezu).

Ikasle bakoitzak, geldi eta begiak itxita, emozio hori sentitu duen momenturen bat gogoratu beharko du, bizitza errealean zein ikusle gisa. Aurpegia eta gorputzeko atalak erabiliz sentimendu hori adierazi beharko du. Egin ostean, begiak ireki eta oinez jarraituko dute irakasleak hurrengo hitza esan arte.

Ariketa hau egiteko beharrezkoa da giro lasaia sortzea, kontzentratu ahal izateko. Ahal den neurrian, komenigarria da soinu edota hitzak ekiditea, eta baita emozio bakoitza benetan sentitzea oztopatzen digun gehiegizko aktuazioa ere.

Jardueraren bilakaeran zehar, argazki indibidualak nahiz taldekoak atera ditzakezu, gero paperean inprimatu eta ikasleekin komentatu. Argazki horiek **Emozionario**aren hurrengo orrialdeak hartuko dituzte. Kapitulu horri **Emotiaurpegiak** izenburua jar diezaiokezue.



“UNIKO” IKUSKIZUNAREN SORKUNTZA

ESZENIKOARI SO

Antzezlan

Antzerkira ikustera joateko momentua iritsi da. Zeuekin eraman dezakezue **Emozionarioa**. Modu honetan, orain arte egindako jardueretan bildu dituzuen emozioen eta antzezlan ikustean biziko dituzuenen topaleku bihurtuko da antzokia. Horrela, ikusten duzuenak zuen pentsatzeko edota sentitzeko modua nola eraldatzen duen ikusiko duzue.

Emozionarioaren orrialde bat antzezlaneko pasarte batzuen berri emateko erabil dezakezue: barre eragin dizuena, negar eragin dizuena, gehien haserretu zaituztena... eta gero ikasgelan landu.

Sinopsia

Paul seme bakarra da eta bere etxeko erregea. Bere arreba Iratiren jaiotzak maitatua izateko beldur sakona sortuko dio eta familiaren egonkortasuna arriskuan jarriko du.

Uniko sei urtetik gorako edozein pertsonari zuzendutako ikuskizuna da, eta ume batengan zein bere inguruarengan neba-arreba baten jaiotzak sor dezakeen jelskortasunaren isla izatea da bere helburua. Txotxongiloaren eta antzerki errealistenaren teknikak konbinatuz, jelsiaren gai arduragarria mahaigaineratuko dugu, bere krudeltasunari zuzenean begiratuz, baina umorea inoiz ere galdu gabe.



Agertokian Paul, bere gurasoak, bere arreba Irati, amona, irakaslea eta Ritxi –bere pelutxezko hartzatxoa eta bere kontzientziaren *alter egoa*- ikusiko ditugu. Beren asmoa ikuskizun familiarra egitea izango da, zentzurik zabalenean, bai umeak bai gurasoak hainbat egoera eta pertsonaiarekin identifikatuta sentituko baitira.

Ondo pasatzeko balio izatea espero dugu eta, bide batez, elkarbizitza, hezkuntza, autoestimua, tristura edota loturen gisako gaien inguruan hausnartzeko ere bai.



Egiletza eta zuendaritza: Iñaki Rikarte.

Zuzendaritza laguntzailea: Aitor de Kintana.

Aktoreak: Aitor de Kintana, Ainara Unanue eta Maite Bayón.

Eszenografia eta jantziak: Ikerne Giménez.

Musika: Bingen Mendizábal.

Paulen txotxongiloaren diseinu eta eraikuntza: Javi Tirado.

Richi eta Tucan txotxongiloaren diseinu eta eraikuntza: Ana Fernández.

Txotxongiloen maneia: Juan Pedro Schwartz.

Argiztapena: David Alkorta.

Ekoizpena: Teatro Paraíso.

Euskarazko Bertsioa: Patxo Tellería.



PUNTU ETA JARRAIAN

Antzerkira joan osteko jarduerak

Antzokira joan aurretiko jarduerari esker, ikusi dugun antzezlanean sakontzeko aukera izan dugu; Paulek eta gainerako pertsonaiek momentu bakoitzean bizi izan dituzten emozioak identifikatu eta bakoitzaren jokamoldea hobeto ulertzekoa.

Istorioaren zer alderdi edota pertsonaiarekin sentitu zareten identifikatuta komenta dezakezue zeuen artean, eta hori zergatik sentitu duzuen.

3.1 JARDUERA. EMOZIOAREN ESENTZIA.

Ziur **Uniko** obra ikustean bizi izan ditugun zenbait emozio berriak izan direla edota beste noizbait bizi izan ditugunak berriz ere sentitzea eragin digutela. Jarraian modu originalean nola irudika ditzakegun ikusiko dugu, gure **Emozionario**an bildu ahal izateko.

Eska iezaezue ikasleei aurreko egunetan etxetik kristalezko ontziak ekartzeko. Ahal izanez gero, tamaina desberdinetakoak eta tapadunak. Emozioaren esentziak gordetzeko erabiliko ditugun ontzitxoak izango dira. Eta zertan datza emozioaren esentzia? Emozio hori ontzi batean sar dezakegun gauza txikiren batera mugatzean datza. Aukera ugari daude; etxean zein ikasgelan duzun objektu txikiren bat izan daiteke, horrela sentitu zaren momenturen bat oroitarazten dizuna, edo ezagutzen duzun norbaiten izena izan daiteke, edo paper zati batean idatzitako hitz bat, edota izan daiteke material baten ezaugarriren batek oroitze hori burutzea ere. Hemen dituzue adibide batzuk, ideiak hartzeko.

Adibideak:

- amorrua → indarrez zimurtutako paperezko pilota bat
- maitasuna → amaren izena paper zati batean idatzita
- lasaitasuna → kotoi zati bat
- zorientasuna → gomazko pilotatxo bat

Bakoitzak **Uniko** antzezlanea ikustean sentitu duen emozioetako bat aukeratu beharko du (lagungarri izan daiteke antzokira joan zineten egunean

*Emozionario*an idatzi zenutena irakurtzea) eta kristalezko ontzian sartu azaldu berri dugun eran: material baten bitartez, objektu baten bitartez...

Emozioaren esentzia jaso ostean, ontzia izenpetu dezakezue eta guztiak batera ikasgelako apal batean jarri. Modu horretan, instalazio artistiko¹ bat egingo duzue denon artean, eta bakoitzak modu batean bizi dituen emozioak ezagutzeko balioko du.



Instalazioa bukatutakoan, ontzi bakoitzaren argazkiak egin ditzakezue eta *Emozionario*aren orrialdeetan jarri.

3.1 JARDUERA. NOLA KONPONDUKO DUGU?

Orain beste pausu bat proposatuko dizuegu emozioen inguruko ikerlan honen baitan.

Ohikoa da, unean uneko emozioak direla eta, modu batean ala bestean jokatzeko eta horrek gure elkarbizitzan eragina izatea. Zenbait kasutan, gure emozioak modu egokian adierazten ez jakitearren, pertsonen arteko gaizkiulertuak sortzen dira eta haserretzera edota gertatzen dena ez ulertzera iritsi gaitzake. Egoera horiek kudeatzeko modu desberdinak ikasteko, hurrengo jarduera hau proposatzen dizuegu.

¹ Ontziak apain ditzakezue, koloretako etiketak jarri, errotuladoreekin margotu... instalazio hau zeuen gustura egiteko.

Jarri ikasleak 4 edo 5 pertsonako taldeetan. Talde bakoitzak duela gutxi ikastetxean bizi izan duten liskar, haserrealdi edo gatazkaren bat gogoratu beharko du. (begiratu adibidea)

Pentsatu zer pertsonak parte hartu zuten gatazka horretan eta banatu rolak (taldeko kideok rol guztiak betetzeko pertsona gutxiegi bazarete, laguntza eska diezaiekezue beste kide batzuei). Gainerako ikasleak lurrean eseriko dira, biribilean. Talde bat biribilaren erdian jarriko da zutunik eta taldekideetako batek goma elastikoa izango du eskuan (unitate honekin batera iritsi zaizuen objektua).

Taldeko norbaitek gainerako ikasleei landuko duten arazoa zein den eta zein rol agertuko diren azalduko die.

Gero, bakoitzak nor ordezkatzeko duen esango du, arazoa nola bizi duen, bere iritzia zein den eta horri dagokionean zer egiten ari den. Guztien artean goma elastikoari eutsiko diote tentsioan egon dadin eta berarekin, gutxi gorabehera, biribil bat irudikatuz, korro bat osatuko dute.


Ariketaren funtsa ondokoa izango da: parte-hartzaile bakoitza mugitu egingo da gainerako kideengandik urrundu ala hurbiltzeko, esaten dutenari buruz duen adostasun mailaren arabera.

Bakoitzak gertatu zaiona eta uste duena esaten duenean, gainerakoek, goma askatu gabe, duten iritziaren arabera mugituko dira. Hartara, gomak forma desberdinak egingo ditu. Partaide guztiek izango dute gertatzen denaren inguruko beren iritzia emateko aukera.

Goma elastikoak egiten duen irudia ikusi ostean, ikasleek proposamenak egin beharko dituzte beraien arteko distantzia murrizteko. Kontuan izan behar dugu ekintza horiek urrun daudenak gertura ditzaketela, baina baita gertu dauzkagunak urrundu ere.

Guztion artean gatazka txiki hauek konpontzeko modu posibleak lantzean datza kontua.

Ikasle bakoitza dagoen lekutik mugitu eta goma elastikoaren forma irudi txikiago eta erregularrago bihurtzean, jarduera bukatuko da.



Adibidea:

- *Haserrealdia jolastokian. Ikasle batzuek egunero jokatzen dute futbolean jolastokian eta espazio guztia bereganatzen dute. Gaur beste ikasle talde batek koreografia bat entseatu nahi izan du eta ez dute leku nahikorik eduki horretarako. Batek baloikada eman dio dantzan ari zen ikasle bati. Elkarri oihu egin diozue eta haserretu egin zarete.*
- *Rolak:*
Futbolean jokatzen ari den ikaslea
Futbolean jokatzen ari den ikaslea
Dantzan ari den ikaslea
Dantzan ari den ikaslea
Gertatzen denari begira dagoen ikaslea
Jolastokiko arduraduna edo zaintzailea
Eskolako zuzendaria
- *(Hasieran biribilean egongo dira, gomak zirkulua irudikatuko du)*
Futbolean jokatzen duen ikasleak jolastokia futbolean jokatzeke dela esango du, eta gainerakoek baloikadak jasotzearen errudunak beraiek direla, bertan egoteagatik. Futbolean ari den beste ikaslea alboan jarriko zaio, eta gainerakoak urrundu egingo dira. Biribilak forma errektangularragoa hartuko du.
- *Proposamenak*
 - *Jolastokiko zaindariak jolasorduan baloiarekin jolasteko aukera gehiagorik ez egotea erabaki du. Futbolean jokatzen ari ziren ikasleak beragandik urrunduko dira. Dantzan ari zirenak, ordea, hurbildu egingo zaizkio.*
 - *Futbolean jokatzen ari zen ikasle batek futbolean ostiraletan bakarrik jokatu ahal izatea proposatu du. Dantzan ari ziren ikasleei ondo iruditu*

zaie eta beragana hurbildu dira, baina futbolearen ari zen beste ikaslea urrundu egin da.

- (...)

Zuk, irakasle, prozesu honen argazkiak egin ditzakezu, eta, gatazken lanketa aurrera doan heinean, goma elastikoak hartzen dituen formak orri batean marraz ditzakezue koloretako errotuladoreez. Argazki eta marrazki horiek **Emozionarioan** gorde ditzakezue, *rol jokoak, emozioak eta gatazkek* izenburudun kapituluan, edota guztion artean pentsatutako izenburu artistikoago batekin.

3.2 JARDUERA. EMOZIOAK SEKRETUPEAN

Azken jarduera honekin osatuko dugu gure **Emozionarioa**. Honako honetan, emozio polit, pozgarri eta gozagarriak eragin eta, era berean, bizitza proposatzen dizuegu, ikasgela hunkitzera eta momentu pertsonal txikiak bizitzera ohitzeko leku intimo bihurtzeko. Horretan **Emozionarioak** lagundu egingo dizue.

Eskaini albumean erabili gabe dauden orrialdeetako bat ikasle bakoitzari. Bakoitzak bere izena jar dezake orrialdeetako batean, nork bere lekua izan dezan.

Orain eman ikasle bakoitzari ikaskide baten izena; zozketa bidez ere egin dezakezue, edota gelako zerrendari jarraituz. Baina inork ezingo du, inolaz ere, jakin beste zein ikasleri egokitu zaion bere izena. Informazio hori sekretupean gorde beharko da.

Emozionarioa ikasgelako leku eskuragarriaren batean geratuko da. Hartara, nahi duenak, nahi duenean, hartu eta egokitu zaion ikaskidearen orrialdean hitz, esaldi edota iruzkinen bat idatziko du, kidea hunkitu eta ondo zein berezi sentiarazteko asmoz.

Adibidea:

- *Zurekin egotea gustatzen zait barre eragiten didazulako*
- *Izugarri gustatzen zait gaur jantzita duzun kamiseta!*



- *Eskerrik asko matematika ariketarekin laguntzeagatik*

Ariketa gustatzen bazaizue, noizean behin izenak berriz zozketatu ditzakezue eta jarduerarekin nahi adina denbora jarraitu.

3.3 JARRAITUKO DU ...

Jarraian, emozioen mundua lantzeko lagungarri izan daitezkeen zenbait material aurkeztuko dizkizuegu; gure sentimenduak ezagutu, gainerakoek eta guk geuk modu jakin batean zergatik jokutzen dugun ulertu eta honi guztiari buruz arazorik gabe hitz egin ahal izateko.

Filma: Estiu 1993, 2017. (Carla Simón.)

<https://www.youtube.com/watch?v=csdohGse3qk>


Gurasoak HIESAgatik hil ostean, sei urte dituen Frida neskatoak (Laila Artigas) Bartzelona utzi eta landa-eremura joango da, bere izeba-osabekin eta horien hiru urteko alaba Annarekin (Paula Robles) bizitzera. Fridak bere lehenengo uda pasatuko du adopziozko familiarekin eta landa-eremu berrira ere egokitu beharko du. 1993ko udan zehar, bere tristura eta mina onartzen ikasiko du eta bere adopziozko gurasoek, bera benetako alaba baten moduan maitatzen⁹

Koloretako munstroa

https://www.google.com/search?q=koloretako+monstruoA+IPUINA++Anna&tbm=isch&ved=2ahUKEwi-suPfqvAhVB4BoKHxf2D8cQ2-cCegQIABAA&oq=koloretako+monstruoA+IPUINA++Anna&gs_l=img.3..132000.133949..134196...1.0..0.92.715.10.....0....1..gws-wiz-img.ALd2VdB3dv0&ei=3a8yXv7PC8HAa fsv7gM#imgrc=Y1q7sFOeFnqcDM

Unitate honetarako beharrezko materialak:

- Kristalezko ontziak
- Etiketak
- Errotuladore “permanente”ak
- Arkatzak, boligrafoak...
- Koloretako orriak



aretoa



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

AMURRIO
UDALA



AMURRIO
AYUNTAMIENTO



Ayuntamiento de OYÓN-OION
OYÓN-OIONgo Udala



ARAMAIOKO UDALA
ARABA



Ayuntamiento Iruña de Oca
Iruña Okako Udala

Ayuntamiento
de Labastida



Bastidako
Udala



Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala

AYUNTAMIENTO
ALEGRIA-DULANTZI



ALEGRIA-DULANTZIKO
UDALA

Kaixo,

Paraiso Antzerkia gara, eta kontatu nahi dizuegu azken hilabeteetan emozioen gaian murgildu garela. Gai horrek liluratu egiten gaitu, eta zuekin partekatu nahi dugu.

Abentura hasteko, prozesu osoan zehar lagunduko dizuen EMOZIONARIO hau utziko dizuegu. Antzerkira joatea ESPERIENTZIA ZIRRARAGARRIA delako, ikasgelan hasi, antzerkitik pasatu eta eskolan jarraitzen duena.

Zuek beste batzuetan ere joan zarete antzerkira, eta ikusle bihurtu zarete. Zein ofizio polita! Ziur bizi izandako emozioez oroitzen zaretela. Ikasgela emozioen ikerketarako espazio txiki eta handi bihurtuko den antzerki-ibilbide berri honi ekiteko balioko dizuete.

Paraiso Antzerkian, Paúl izeneko haur baten eta bere familiaren emozioei erreparatu diegu, "**Uniko**" antzerki ikuskizuna sortzeko. Paúl du izena protagonistak, Irati ahizparen jaiotzarekin dena aldatzen dela sentituko duen haurra.

Ikuskizunaren argazkiak eta sarrera kolektibo handi bat, emanaldira joateko, bidaltzen dizkizuegu

Antzokian dena prest dago ikusle gisa zuei harrera egiteko. Zuen zain gaude!



Sin. Paraiso Antzerkia.





